

EGUNA ETA GABA.

Egun-sentiya, gaba joanik,
Datorrenean larrosturik,
Illuntasúnak, urraturik,
Aldentzen dira lotsaturik.

¡Zéñ ederra
Dan eguna,
Zeru-doai,
Gozoduna!
¡Zéñ tristea,
Negartsua,
Dan gau illun
Isiltsua!
¡Bedeinkatua,
Egun gozua!
¡Baniteke bizi beti
Argiz inguratu!

Egunaz, arbol galurretan,
Naiz adar-arte guztyetan,
Ikusten dira jostaketan
Chori pollitak, ta kantetan

Egunaz ¡zéñ
Otseztiyak,
Dauden chori
Kantariyak!
Eta gabaz
Penatuak,
Illunpeak
Mututuak.
Ditu choriyak
Pozten argiyak.
¿Nola, beraz, ez maitatu
Egunaren doaiyak?

Gaba danean aldendutzen,
Goiza danean agertutzen,
Dana dalarik dizdiratzen,
¡Zér atsegíña dan sentitzen!

¡Ai! eguna
Da pozkaiya,
Zoriona
Ta biziya.
Gau beltza da
Chit mingotza,
Zorigaitza
T' eriotza.
¡Ongi-etorriya,
Egun alaiya!
Beti zure billa nabill,
Egun dizdizariya.

Mendi goitiyak, zelai lanak,
Errekak, ibai leyartsuak
Egunaz daude galaituak,
Gabaz, guztiyak dolkaituak.¹

¡Bai! egunaz
Lorechuak,
Dira guziz
Lurrantsuak.²
Eta gabaz,
Da pozoiya,
Berak duten
Lurrinkaiya.
¡Joan etzaitea,
Egun maitea!
Nigan ez dedin etorri
Gau itzaltsu tristea!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) Enlutados.—(2) Perfumados.